



MendiAmore

Mendia bizi

SEGMENTAZIOA

Gure bezero potentzialak hirietan hezitu eta bizi diren bizikideak dira, ezezaguna duten herrietako eguneroko bizitza ezagutu dezaten. Bere baitan, familiak erakartzea du helburu nagusia gure sozietateak. Era berean, umeen adina 3-12 bitartekoa izan behar da, adin-tarte horren barruan 3-8 urte bitartekoa jarduera jakin batzuk bideratuko zaie (pony games, animaliak elikatzea, baratza landatzea, ur-jolasak...) eta 9-14 bitartekoa, berriz beste batzuk (zaldi ibilaldiak, jinkana, kirolak...), talde bakoitzari egokitua, alegia. Familia osoari bideratutako jarudetak honako hauek izango lirateke: txikientzat gurasoekin batera, abeltzaintzan aritzen diren animaliak ikustea, zaldi ibilaldiak, ingurumenarekin bat egiteko ekintzak, ingurumena zaintzearen garrantzia erakustea... .

Nolanahi ere, beste ekintza batzuk prestatuta egongo dira nerabeentzako, hots, 14-17 urte bitartekoa. Gehienbat eskola arloan, ikas-urtean zehar. Udan, berriz, gurekin lan egiten duten monitore eta zaindareekin egongo dira. Talde hauentzako, hainbat ekintza kultural prestatuko zaie, esate baterako: ehiza, ibaira joan eta arrainak ehiztatu, ibaian ur ekintzak egin, nekazaritzan aritzeko tresneria erabiltzeko aukera izatea... Lurraren laborantza (traktoreak, uzta-makina... erabiliz). Hauentzat udalekuak eskeiniko dira uda osoan zehar, mendialdeko albergeak eta landa etxeak maiz erabiliz (Bernedo, Kanpezu, Maeztu...). Azkenik, helduentzako eta hirugarren adinentzat bideratutako ohiturak, gastronomia, kakorratz-lanak, zurezko tailerrak... erakutsi dezakegu. Hau guztia antolatzeko programa bat egongo da.

Udan udalekuak ere prestatuko dira. Gehienbat didaktikoak, hainbat jarduera ludikoen bidez, haurrek benetako ikaspena lortuko dute. Ginkana moduan antolatuta. Hauek iraila eta maitza artean bideratuko dira 2-4 egunez iraunduko dutenak.

Bestalde, eskaintzen dugu zerbitzuak behar bereziak duten pertsonentzat ere bideratuko dira. Donebikendi Haranako Zalditegian, adibidez, equinoterapia sesioak emanaz.